ESKU-HARTZE SOZIO-HEZITZAILE ETA PSIKOSOZIAL ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1.- TESTUINGURUA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusitako, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak honako hauek dira:

- Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.
- Babesgabetasun egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.
- Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi egoerak eragiten dituzten pertsonen eta familia beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuetakoa, bere 22. Artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Sistemaren Katalogoa ezartzen du. Bertan jasota daude euskal administrazio publikoak eskaini behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak, eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu.

Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretuak, 2015eko urriaren 6an onartua, 33. Artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen antolaketa zehazten du. Bigarrengo atalean, 1.3 puntuan esaten du udalek eskumena izango dutela esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala egiteko zerbitzua bermatu eta emateko.

Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke.

Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek:

a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetza egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea;
b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzea

Halaber, gaur egungo testuinguru legala kontuan hartu behar da, besteak beste:

- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrena.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa.
- 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.
- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko tresna onartzen duena.
- 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubideri buruzkoa.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babestekoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.
- Beste edozein xedapen, etorkizunean arau hauek aldatu edo garatuko dituztenak.

Horiek horrela, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko karterak zehaztutako hartzaileez gain, Azkoitiko Udalak bestelako hartzaile batzuk ere zerbitzuaren barne hartuko ditu zerbitzua osatzen duen programa ezberdinetan.

2.- XEDEA

Kontratu honen xedea da, Azkoitiko udalerrian ESKU-HARTZE SOZIO-HEZITZAILEA ETA PSIKOSOZIAL zerbitzua garatzea, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak ikuskatuta, koordinatuta eta ezarritako gidalerroen arabera.

Esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala eskaintzeko, plegu hauetako zerbitzuen arloa arautzen duten xedapen legal guztiak aplikatuko dira.

3.- ZERBITZUAREN EDUKIA

3.1.-DEFINIZIOA

Zerbitzu honetan, eskaintzen da gizarte- eta hezkuntza- arloan eta arlo psikosozialean esku-hartze zuzena banaka, familia eta komunitate mailan; eta prestazio horiek familiaren etxebizitzan zein komunitate ingurune irekian garatu daitezke. Horretaz gain, pertsona eta

familia horiekin lan egiten duten eragileekin esku-hartuko da, baita Azkoitiko komunitate osoarekin ere.

3.2.-HELBURUAK

A) Babesgabetasun eta bazterkeria kasuen detekzio goiztiarra:

- Hezkuntza, osasun, gazte hezitzaile eta orokorrean gizarte eragileen formazioa lortu, adingabekoen babesgabetasun egoerak edo helduen gizarte-bazterketa egoerak identifikatzeko.
- Eman ahal diren kasuen atentzioa hobetzeko helburuarekin sarean lan egiteko guneak eta errekurtsoak sortu.
- Udal mailan eta mankomunitatean dauden errekurtso artean elkarlanerako koordinazio espazioak sortu edota daudenak indartu (osasun zentroa, eskolak, topalekua, osasun mentala, udaltzaingoa, Iraurgi Berritzen…).
- Gurasoei beren hezitzaile rolean laguntzeko, formazio, aholkularitza eta elkartrukerako guneak sortu.
- Zailtasun pertsonalak edo familiarrak dituzten adingabekoen artean berdinen arteko taldeak sortu eta jokoaren eta aisialdiaren bitartez bizitzako balore osasuntsu eta egokiak sustatu.

B) Esku-hartze psikosozialak eta sozio-hezitzaileak garatzea adingabekoekin eta beraien familiekin, bazterkeria egoeran dauden helduekin eta indarkeria matxista biktimak diren emakumeekin:

- Espazio bat eskaintzea gurasoei edo legezko tutoreei, haien ardurapean dauden adingabeen oinarrizko beharrak hobeto ezagutu eta gertuago sentitzeko.
- Beharrezkoak diren aldaketak bultzatzea familia dinamikaren barruan, adingabeek testuinguru segurua izan dezaten, eta egoera horretan garapen osasungarria izan dezaten, ulertuta kontzeptu hori hiru eremu hauetan: gorputza, psikologia eta gizartea.
- Adingabe hauen gurasoek edo legezko tutoreek euren seme-alaben ezinegonean izan dezaketen erantzukizunaren gainean, kontzientzia hartzen laguntzea.
- Gurasoei edo legezko tutoreei gaitasunak, guraso rolak eta heziketa jarraibideak ematea, haien seme- alaben oinarrizko beharrak betetze aldera; eta horiek egunez egun aplikatu daitezen sustatzea (etxean, eskolan, kalean…).
- Halako egoeran dauden haurrei eta /edo nerabeei bizi izan dituzten esperientzia traumatikoak kontatu ditzaten laguntzea, bizi izandako horiek oztopo izan ez daitezen haien heltze psikoafektiboaren prozesuan (erruduntasun sentimendua baztertzea, autoestimua handitzea…).
- Irakastea haurrei eta/edo nerabeei badaudela beste portaera eta harreman zintzoen eredu batzuk, eta sustatzea horiek aplikatu daitezen eguneroko bizimoduan, parte hartzeko nukleoetan (familia, eskola, lagun taldea, bikotea…); haien harreman taldeetan sozializatzea eta/edo gizarteratzea errazte aldera.
- Haurretan edo nerabeetan egokitu gabeko portaerak prebenitzea eta/edo gutxitzea, gizartearen aldeko beste batzuk sustatua.
- Familia bizikidetza hobetzeko eta ingurunean txertatzeko jarraibideak lantzea.

- Familia unitateko eta komunitate barruko unitate gisa, familia taldeko kide bakoitzaren autonomia-maila indartzea.
- Autonomia bilakaera, gizartean txertatzea eta familia eta komunitate arloan elkarbizitza egokia lortzeko gaitasun pertsonalak hartu eta garatu dezaten (jarrerak, trebetasunak, ezagutzak, jarraibide, abileziak).
- Egokiak ez diren ohiturak, jokaerak, oharmenak, sentimenduak eta jarrerak, egokiagoak diren beste batzuengatik ordezkatu.
- Indarkeria Matxista biktimak diren emakumeekin eta beraien familiekin erreparazioa ahalbidetzeko bitartekoak eskaintzea, beraien ahalduntzea bultzatuta eta gaitasunak berreskuratuta.

C) Oinarrizko laguntza psikosoziala eskaintzea.

- Espazio bat eskaintzea gizarte ahultasuneko egoera bat sortzen edo mantentzen duten faktoreak murrizteko eta/edo ezabatzeko, bereziki ondorio psikologikoak prebenitzeko edo/eta arintzeko.
- Gizarteratzea zailtzen dioten faktore eta zailtasun psikologikoei heltzea.

D) Koordinazioa eta parte hartze komunitarioa:

- Parte hartzea honelako egoerak baloratzeko taldean: Haur eta nerabeen babesgabetasun egoerak eta gizarte bazterketa egoerak.
- Udal/komunitate zerbitzu guztiei beharraren arabera aholkularitza teknikoa eta orientazioa ematea.
- Ekimen edo programa komunitario ezberdinetan presentzia izango du zerbitzuak, parte-hartuko du aktiboki edota zerbitzuak berak dinamizatu ahal izango du ekimena.

3.3.-HARTZAILEAK

a) Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak. Arrisku egoera larrian daudela balioetsitako pertsona helduak kanpo geratuko dira.
b) Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak eta beraien zaintzaile ez profesionalak.
c) Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak. Larritasun egoeran dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira.
d) Larrialdi egoerak pairatu dituzten pertsonak eta familiak.
e) Indarkeria Matxista biktimak diren emakumeak.
f) Zerbitzua, eragile, profesional eta Azkoitiko komunitate barruko zerbitzuei ere zuzenduta egongo da (eskola, osasun zentroa, denbora librean lana egiten duten eragile, eta abar…), adingabekoen egoera arriskuan, eta/edo pertsona helduak bazterketa arrisku egoeran daudenean detektatu, prebenitu eta esku hartzeak egiteko aholkularitza behar dutenean.
g) Zerbitzua, Gizarte Ongizate Saileko profesionalei laguntzeko ere izango da, adingabekoen babesgabetasun egoerak baloratzeko, baita ere beharrezkoa izan dezaketen euskarri emozionala eta teknikoa eskaintzeko.

3.4.-ESKAINI BEHARREKO PROGRAMAK

Zerbitzu honen bitartez eskaini beharko diren lehentasunezko programak edo jarduerak, honako hauek izango dira:

PREBENTZIOA: PRESTAKUNTZA ETA AKONPAINAMENDUA
Lehenik, adingabeen babes sistemaren inguruan adingabeekin eurekin edo/eta beraien familiekin lan egiten duten profesionalei zuzendutako prestakuntza garatuko da. Baita ere bazterkeria arriskuan egon daitezkeen pertsonekin eta familiekin zuzenean lan egiten dutenekin. Bigarrenik, akonpainamendu puntuala eta prebentiboa izateko aukera izango dute aldez aurretik intentsitate maila handiagoko esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala izan duten herritarrek. Horretaz gain, herritarrei orokorrean sentsibilizatzeko prestakuntzak, hitzaldiak, mintegiak eta abarrak emango dira. Helburuak: • Sentsibilizatu, indartu eta beraien eginkizuna hobetzeko estrategiak eta trebetasunak garatu. • Babesgabetasun edota bazterkeria arrisku egoera posibleak artatzeko bideak hobetzea eta irekitzea. • Arrisku egoerak goiztiar detektatu. • Esku-hartze prebentibo goiztiar bat bultzatu. • Gizartearen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa ahalbidetzea. • Koordinazioa indartu eta deribazio goiztiarrak areagotu. • Profesionalen arteko erantzukidetasuna bultzatu. • Gurasotasun positiboa ahalbidetzea.
Modalitateak
1) **<u>Prestakuntza saioak eragileei:</u>** Aurreikusten dira urtean 4 prestakuntza saio ematea. 2) **<u>Akonpainamendua:</u>** Akonpainamendu puntuala egitea esku-hartze sozio-hezitzailea edota psikosoziala izan duten pertsonei/familiei (adingabeak eta gurasoak; bazterkeria arriskuan dauden pertsona heldu eta familiak; eta, indarkeria matxista biktimak diren emakumeak, adingabeak eta familiak.). Beti ere Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako eskumeneko baliabideak jasotzeko eskubidea ez badute. 3) **<u>Herritarrei prestakuntza orokorra:</u>** Azkoitiarrei zuzenean bideratuta egongo diren prestakuntza, hitzaldiak, mintegi edo bestelako sentsibilizazio ekintzak. Esaterako, gurasoentzat irakurketak prestatzea, herriko espazio ezberdinetan lanketa hezitzaileak. Lizitatzaile bakoitzak egin beharko du bere proposamena.
Aurreikusitako intentsitatea
1) **<u>Prestakuntza saioak eragileei</u>**: Aurreikusten dira urtean 4 prestakuntza saio ematea eragileei. Guztira: ***104 ordu urtean***. Prestakuntza bakoitzeko banaketa: Planifikazioa: 10 ordu / Zuzeneko saioak: 12 ordu (6 ordu langileko) / Ebaluazioa eta balorazioa: 4 ordu. 2) **<u>Akonpainamendu puntualak:</u>** Aurreikusten dira akonpainamendu puntualetako ***30 ordu urtean***. Zehazki, zuzeneko orduak 20 eta zeharkakoak 10. 3) **<u>Herritarrei prestakuntza orokorra:</u>** Aurreikusten dira prestakuntzak, hitzaldiak, mintegiak, irakurketak edota bestelako sentsibilizazio ekintzak bideratzeko ***50 ordu urtean*.** Konkretuki, zuzeneko orduak 15; eta, zeharkakoak, berriz, 35.

ESKU-HARTZE GOIZTIARRA
Xedea da adingabeen babesgabetasunerako arrisku faktoreak goiz detektatzeko programa bat garatzea eta gauzatzea, eta detektatutako egoeretan goiz jarduteko eta esku-hartzeko ekintzak aurrera eramatea.

Hori horrela, batetik, adingabekoak beren kargu dituzten familiei edo/eta adingabeei zuzendutako esku-hartze goiztiarra egingo da. Esku-hartze hori sozio-hezitzailea edota psikosoziala izan daiteke eta esku-hartzea banakakoa edo/eta taldekoa. Xedeak dira:

- Orientazioa eta aholkularitza eskaini, gatazka, krisi eta familiarteko harremanen gorabeheren aurrean.
- Gatazka egoerak jaso, ulertzen lagundu eta bideratzeko komunikazio abileziak landu.
- Esku-hartze prebentiboak eskaini haurren beharrak modu egokian betetzeko.
- Guraso edo adingabeen arduradunei guraso funtzio eta rolean lagundu.

Bestetik, ordea, adingabeekin zuzenean eta haien testuinguru naturaletan lan egiten duten profesionalei informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskainiko zaie. Azkoitiko herriko ikastetxeetan batzorde iraunkorrak sortu edo mantenduko dira. Helburuak dira:

- Profesionalei jarraibideak ematea, zuzenean esku hartzen jakin dezaten adingabeen testuinguru naturaletan detektatutako babesgabetasun egoeretan.
- Profesionalei aholku ematea, detektatutako babesgabetasun egoerei heltzean familiekin egoki komunikatu daitezen.
- Esku hartze goiztiarreko profesionalek familiekin eta adingabeekin esku hartzea behar denean, detektatutako egoerei ondoen egokitzen zaizkien baliabideak eta euskarriak eskaintzea.
- Erakunde-arteko erantzukizun esparru bat lortzea, sareko lana sustatuz adingabeekin lan egiten duten profesionalen artean.
- Detektatutako egoerak gizarte zerbitzuetara bideratzeko protokoloak sustatzea eta aplikatzea, hala behar denean.

Modalitateak

1) **<u>Eskolako batzordeak</u>**: Eskolako bertako profesionalek (orientatzailea, ikasketaburua, tutoreak, jantokiko arduraduna...), zerbitzuko psikologoak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak parte hartuko dute. Modalitate horretan, profesionalak eskatzen dioten informazioa eta orientazioa eman behar ditu eta batzordeko kideek esku hartzeko plan bat zehaztuko dute.

Zerbitu hau Azkoitia BHI, Floreaga eta Xabier Munibe zentroetan eskainiko da modu egonkorrean batzorde egonkor gisa eratuta. Aurreikusten da Bizilore zentroarekin sare edo elkarlan iraunkorra eraikitzea.

Garrantzitsua da zentro guztietako gurasoek aipatutako batzorde horien berri edukitzea hasieratik, ongi informatzea zein den batzordearen xedea “adingabeen ongizatea bermatzea”; izan ere, horrek legitimitatea emango dio. Aukera bat da zentroetako matrikula orrian txertatzea edo beste orri gehigarria batean. Gainera, batzordeko kideek proposatuta esku-hartze goiztiarreko esku-hartzea martxan jarri behar bada, batzordeak berak jakinaraziko dio (zehaztu batzordeko kideen artean nola jakinarazi) guraso, tutoreari... zerbitzuaren beharra, eta guraso, tutore… horiei orientatu behar die Azkoitiko Gizarte Zerbitzuetara joan behar direla zerbitzua eskatzera. Ondoren, Udaleko gizarte langilea beraiekin bilduko da eta batzordeak identifikatutako beharrak jasotzen dituen jakinarazpena erantsiko da. Dena dela, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ere zuzenean aktibatu dezakete esku-hartzea.

2) **<u>Esku hartze goiztiarreko esku-hartzeak.</u>** Adingabekoak bere kargura dituzten Azkoitiko familiak edo/eta adingabekoak izango dira onuradunak. Besteak beste, honako **EGOERAK** izan daitezke esku-hartze goiztiarra martxan jartzeko aurreikusitakoak:

- Adingabeei minik eragiten ez dieten eta arrisku arineko zabarkeria egoerak.
- Banaketa eta dibortzio gatazkatsuetan gurasotasun positiboa lantzeko adingabekoen instrumentalizazioa ekiditea beharrezkoa den egoerak.
- Gurasoen aurkako indarkeria susmoa dagoen egoerak.
- Gurasoen arteko desadostasunak ematen direnean adingabeen zaintzaren inguruan.
- Jarraian zerrendatzen diren egoerak ere izan daitezke: *Desgaitasuna duten umeen gurasoei,*

Gurasoak edo tutoreak hiltzen diren kasuetan, Umeen heriotza gertatzen denean, Adingabekoa haurdun geratzen den kasuetan, Adingabeko baten suizidioa edo suizidio saiakera gertatzen denean, Bullyinga, Adingabeen delituak ematen direnean, adingabeko baten zaintza bere kargura hartzen duenean aldundiak…

- Familiek esku-hartze giza-hezitzailea edota psikosoziala eduki ondoren balioesten bada berriro ere laguntza behar duela. Behar hori puntuala izan behar da, eta 2 urteko esku hartzea garatu ondoren aplikatuko litzateke. Halere, horrelako egoerek ez dute lehentasuna edukiko gainontzeko kasuen aurrean.
- Adingabekoaren babesgabetasun arriskuaren azterketa egin ondoren balioesten bada egokiagoa dela esku-hartze goiztiarra martxan jartzea, hau da, intentsitate baxuagoko esku-hartzea.

Esku-hartzea sozio-hezitzailea edo psikosoziala izango da banakakoa edo taldekoa, eta funtsezkoa da **BALDINTZA** hauek betetzea:

- Arrisku edo zaurgarritasun kasuak denean.
- Esku hartu behar duten eragileak (gurasoak, irakasleak…) motibatuta egotea eta laguntzeko jarrera izatea.
- Lanerako sare bat izatea kasua detektatu duen unitate profesionalean.
- Pronostikoa ona izatea eta ebaluagarria izatea.
- Aurreikusitako esku hartze aldia ez izatea 6 hilabetetik gorako.

Aurreikusitako intentsitatea

1) **<u>Eskolako batzordeak:</u>** ikasturteko 9 hilabeteetan, urritik ekainera (biak barne). ***90 ordu urtean*** aurreikusten dira. Honako lan-orduen banaketa:

- (1,75 orduko saio zuzena + 0,5 prestaketa) X 9 hilabete X 3 zentro = 60,75 ordu.
- Bizilore ere izan daiteke beste zentroa (1,75 orduko saio zuzena + 0,5 prestaketa) X 3 bilera (4 hilero) = 6,75 ordu.
- Bertatik eratorritako lana = 22,5 ordu

2) **<u>Esku hartze goiztiarreko esku-hartzea</u>**: esku-hartze kopuruaren eta modalitatean arabera aldatuko da. ***383 ordu urtean*** aurreikusten da. Honako modalitateak egongo dira:

a) Banakako psikosoziala *(5 kasu. 27 ordu zerbitzuko):* Intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 3 saio (balorazioa) + 9 saio (esku-hartzea) + 3 saio (itxiera) = 15 saio.
- *Zeharka* (orduka): saioen planifikazioa 5 ordu + balorazio txostena 1,5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu + koordinazioa (aurkezpena + itxiera) 1 + 1 = 12 ordu

b) Esku-hartze psikosoziala TALDE NATURALETAN *(2 talde urtean. 24 ordu taldeko):* Intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 2 saio (balorazioa) + 6 saio (esku-hartzea) + 2 saio (itxiera) = 10 saio.
- *Zeharka:* talde prestaketa 5,5 ordu + saio bakoitzaren prestaketa 5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu = 14 ordu.

c) Banakako sozio-hezitzailea*: (5 kasu. 40 ordu zerbitzuko)*. Intentsitatea:

- *Zuzena* (1,5 orduko saioak): 4 saio (balorazioa) + 10 saio (esku-hartzea) + 4 saio (itxiera) = 18 saio (27 ordu).
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 6 ordu + hasierako txostena 1,5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu + koordinazioa (aurkezpena + itxiera) 1+1 = 13 ordu.

GIZARTE HEZIKETA ETA PSIKOSOZIALA

Batetik, seme-alabek hezteko orduan zailtasun handiak dituzten eta babesgabetasun-arrisku egoeran dauden familiei zuzenduta dago. Helburua da haurrak ahal den heinean familia ingurunean mantentzea, eta horretarako lortu nahi da esku hartze sozio-hezitzailearekin eta psikosozialarekin

gurasoen gaitasuna hobetzea edo seme-alaba adingabeak zaintzeko eginkizunetan laguntzea.

Bestetik, gizarte bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsona helduei eta beraien familiei erremintak ematea ezinbestekoa da eguneroko bizitzan hobeto moldatzeko eta gaitasunak berreskuratzeko eta garapen pertsonaleko prozesu horretan laguntzeko. Bereziki, lan egiten da trebetasun sozialak indartzeko, etxeko antolaketan hobetzeko, ohitura osasungarriak eskuratzeko, baliabide ekonomikoak egoki administratzeko…

Azkenik, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak, adingabeak eta beraien familiak urte luzeez pairatzen dituzte indarkeria horiek, kasu askotan erlazionatzeko modu horiek barneratzen dituzte, beraien izaera ahultzen dute eta laguntza sozio-hezitzailea edota psikosoziala behar izaten dute gaitasun horiek berreskuratzeko eta beraien izaera erreparatzeko.

Modalitateak

1) **<u>Esku-hartze sozio-hezitzailea</u>:**

- Esku-hartze sozio-hezitzaileen gehiengo iraupena 28 hilabetekoa izango da (4+8+8+8).
- Esku-hartze sozio-hezitzailearen balorazio fasea 4 hilabetekoa izango da.
- Esku-hartze planak 8 hilabetekoak izango dira.
- Adingabeak dauden esku-hartzeak, ohikotasunez, astean 2 saiokoak izango dira, saio bakoitza 1,5 orduko iraupenarekin.
- Gizarte bazterkeria edo/eta Indarkeria Matxista esku-hartzeak, ohikotasunez, astean saio bakarrekoak izango dira, saio bakoitza 1,5 orduko iraupenarekin.
- Kasuaren koordinazio bilera egingo da erreferentziako gizarte langilearekin 2 hilero (0,5 ordukoa), batzuetan balorazio edo itxiera faseko koordinazioarekin bat egingo du.
- Esku hartze sozio-hezitzailea 28 hilabetekoa izatera iristen bada (4+8+8+8), modu ez-ohikoan beste 4 hilabete luzatu ahal izango da (beti ere itxierara begirako esku hartzea).
- Esku-hartzea aurrerago berriro aktibatu beharko balitz, lehentasuna esku-hartze goiztiarreko modalitateak. **Oso salbuespen egoeran berriro modalitate hau.**

2) **<u>Esku-hartze psikosoziala</u>:**

- Esku-hartze psikosozialak 7,5 hilabetekoak izatea aurreikusten da, ez da luzapenik aurreikusten, eta xedea izango da banakako esku-hartzeetatik taldeko esku-hartzera bideratzea edota bestelako baliabideetara. Halere, salbuespenez, beste 1,5 hilabete luzatu ahalko da (ixteko xedea).
- Ohikotasunean, esku-hartze saioak astean behin edo bi astetik behin izango dira eta saio bakoitzak ordu beteko iraupena izango du. Hortaz, pertsonaren/familiaren erritmoaren arabera aipatutako iraupen hori handiagoa izan daiteke. Beti ere, beharrezkoa dela balioesten bada.
- Zehaztutako aurkezpen, balorazio eta itxiera koordinazioez gain, erreferentziako gizarte langilearekin aurreikusitako 18 saioko esku-hartzearen erdia gauzatzean ere egingo da koordinazioa (9.saioa pasatu ondoren).
- Zerbitzua jasoko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako eskumeneko baliabideak jasotzeko eskubidea ez duten erabiltzaileek. Beste erakunde batzuetako laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea badute horiek izango dute lehentasuna.

Aurreikusitako intentsitatea

1) Adingabeak eta gurasoak edo legezko tutoreak (indarkeria matxista eta bazterkeria barne adingabeak kargura badituzte).

a) <u>Sozio-hezitzailea</u>: *(11 kasu urtean. 188,5 ordu kasuko.* ***2073,5 ordu urtean****)*: Intentsitatea:

- *Zuzena* (1,5 orduko saioak)*:* 32 saio (balorazioa 4 hilabete) + 64 saio (esku-hartzea 8 hilabete) = 96 saio (144 ordu).
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 32 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + esku-hartze txostena 4 ordu + koordinazio bilerak gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + koordinazioa + itxiera) 1+1+2+1 = 44,5 ordu

b) Psikosoziala: *(8 kasu urtean. 50,5 ordu kasuko.* ***404 ordu urtean****):* intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 6 saio (balorazioa) + 18 saio (esku-hartzea) + 6 saio (itxiera) = 30 saio/ordu.
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 10 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu + koordinazioa gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + 9.saio koordinazioa + itxiera) 1+1+0,5+1= 20,5 ordu

2) Gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsona heldu eta familiak (adingabeak kargura ez).

a) Sozio-hezitzailea: *(4 kasu urtean. 100,5 ordu kasuko.* ***402 ordu urtean****)*: Intentsitatea:

- *Zuzena* (1,5 orduko saioak): 16 saio (balorazioa 4 hilabete) + 32 saio (esku-hartzea 8 hilabete) = 48 saio (72 ordu).
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 16 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + itxiera txostena 4 ordu + koordinazio bilerak gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + koordinazioa + itxiera) 1+1+2+1 = 28,5 ordu

b) Psikosoziala: *(2 kasu urtean. 50,5 ordu kasuko.* ***101 ordu urtean****):* intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 6 saio (balorazioa) + 18 saio (esku-hartzea) + 6 saio (itxiera) = 30 saio/ordu.
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 10 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu + koordinazioa gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + 9.saio koordinazioa + itxiera) 1+1+0,5+1= 20,5 ordu

3) Indarkeria Matxista biktimak diren emakumeak (adingabeak kargura ez dituztenak).

a) Sozio-hezitzailea: *(4 kasu urtean. 100,5 ordu kasuko.* ***402 ordu urtean****)*: Intentsitatea:

- *Zuzena* (1,5 orduko saioak): 16 saio (balorazioa 4 hilabete) + 32 saio (esku-hartzea 8 hilabete) = 48 saio (72 ordu).
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 16 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + itxiera txostena 4 ordu + koordinazio bilerak gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + koordinazioa + itxiera) 1+1+2+1 = 28,5 ordu

b) Psikosoziala: *(2 kasu urtean. 50,5 ordu kasuko.* ***101 ordu urtean****):* intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 6 saio (balorazioa) + 18 saio (esku-hartzea) + 6 saio (itxiera) = 30 saio/ordu.
- *Zeharka* (orduka): Planifikazioa 10 ordu + balorazio txostena 3,5 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu + koordinazioa gizarte langilea (aurkezpena + balorazioa + 9.saio koordinazioa + itxiera) 1+1+0,5+1= 20,5 ordu.

INGURUNE IREKIAN GIZARTE HEZIKETA

Esku hartze sozio-hezitzailea kalean garapen pertsonalean laguntzeko arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeei eta gazteei, eta tresna hezitzaileak eskaintzea, trebetasunak beraganatzeko eta baliabide eta zerbitzu komunitarioetan (aisialdia, kultura, kirola, elkarteak,…) normaltasunez parte hartzeko. Hartzaile nagiak izango dira arriskua egoeran dauden 10-17 urte bitarteko azkoitiarrak eta 18-23 urte bitarteko gazte azkoitiarrak.

Modalitateak

Esku-hartze sozio-hezitzaileetako hiru modalitateak garatu beharko dira:

1) Banakako esku-hartzeak.
2) Taldeko esku-hartzeak.
3) Esku-hartze komunitarioak.

Hainbat ezaugarri kontuan hartu behar dira:

- Programaren txostena urtekoa izango da, eta zerbitzu osoaren memoriarekin aurkeztuko da.
- Banakako edo/eta taldeko esku-hartze sozio-hezitzaileen iraupena 8 hilabetekoa izango da.
- Kale behaketa orokorra urtean behin egingo da, eta urtez urte, behaketa urtaroz aldatzen joango da. Azterketa orokorra izango da, zerbitzu osoaren onuradun potentzialak izan daitezkeen pertsonei edo pertsona taldeei begira.
- Salbuespen modura, zerbitzua larunbatetan ere eskaini ahalko da. Aurreikusten da hilean behin, gutxi gora-behera, larunbatean, artatutako nerabeekin eta gazteekin ekintza puntualak egitea.
- Zerbitzua ingurune irekian gauzatu behar bada ere, hots, herriko kaleetan edota baliabideetan, zerbitzuak eskuragarri edukiko ditu bestelako espazioak:
  - Lan-taldeak eskura edukiko du banakako, taldeko eta gune irekia egiteko espazioa.
  - Baratza.
- Bakarrik etxean dauden eta kalera irteten ez diren adingabe eta gazte azkoitiarrengana iristeko bitartekoak jarri beharko dira.

Aurreikusitako intentsitatea

Lan-taldeko bi hezitzaileren lanaldi erdia bideratuko da programa honetara. Hortaz, hezitzaile bakoitzak urtean 796 orduko lanaldia bideratuko du; eta, beraz, guztira ***urtean 1.592 ordu*** dira.
Arreta zuzena: 1.061 ordu (%66,6). Hezitzaile bakoitzaren kasuan 530,5 ordu (%33,3).
Zeharkako lana: 530,5 ordu (%33,3). Hezitzaile bakoitzaren kasuan 265,5 ordu (%16,6).
*Dena dela, zerbitzuaren antolaketa dela medio, beste hezitzaileek ere egin ahalko dute kale-hezitzaile lanak, nahiz eta zuzenean langile bati egokitu programa. Baina, beti ere egoki baloratzen bada lan-taldean eta Udaleko gizarte zerbitzuetan, eta horrek zerbitzu osoaren antolakuntza orekatua izatea ahalbidetuko balu.

TALDEKAKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

Azkoitiko pertsonei zuzendutako taldeko laguntza programa ematea da xedea. Laguntza-taldetzat hartzen da bizipenak trukatuz eguneroko bizitzan asaldurak eragiten dituen arazo bati aurre egiten laguntzeko aldian-aldian biltzen diren pertsonen multzoa. Taldeko kide guztientzat arazo horiek ohikoak dira egunerokotasunean. Laguntza-taldearen jomugak honakoak dira, besteak beste:

- Familia mailan ematen diren krisi eta aldaketa prozesuetan laguntzeko talde terapeutiko eta hezitzaileko guneak sortu.
- Babes faktoreak indartu.
- Gatazka egoerak jaso, ulertzen lagundu eta komunikazioa bideratzeko abileziak landu.
- Arrisku faktoreak gutxitu.
- Harreman egokiak izateko estrategiak landu parte-hartzaileekin.
- Auto-estimua indartu eta laguntza sareak eraiki.

Onuradunak Azkoitiko pertsonak eta familiak izango dira orokorrean, baina bereziki zerbitzuaren onuradunak izango dira: babesgabetasun arriskuan dauden adingabeak eta adingabe horien gurasoak edo legezko tutoreak; gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsona heldu eta familiak; indarkeria Matxista biktimak diren emakumeak eta familiak; eta, beste batzuk, horrela baloratzen bada Azkoitiko Udaleko gizarte zerbitzuen eta zerbitzua kudeatuko duen lan-taldearen artean.

Modalitateak

Laguntza talde ezberdinak antolatu ahalko dira; beti ere, Udal Gizarte Zerbitzuek herriko gainontzeko eragileekin eta zerbitzuko lan-taldearekin Azkoitian antzemandako beharrei erantzuna bideratuak badaude. Besteak beste, honako taldeak sortu daitezke:

- Egonezin emozionala kudeatzeko laguntza-taldea.
- Familientzat laguntza-taldeak: beharraren arabera.
- Familia monomarentalak edota monoparentalak.

- Banaketa eta dibortzio gatazkatsuen baitan gurasotasun positiboa.
- Gurasoen aurkako indarkeria egoeretan garaiz esku hartzeko taldea.
- Eguneroko kudeaketarako laguntza taldea: ekonomikoa, etxeko antolaketa…
- Gurasotasun Positiboa lantzen duten guraso-taldeak.
- Migrazio dolua pairatzen ari diren adingabeak edo/eta beraien gurasoak.
- Azkoitira iritsi berri diren adingabeak.
- Banakako esku-hartze psikosoziala eduki duten pertsonak.

Laguntza talde horiek ezaugarri eta intentsitate ezberdina eduki dezakete, egon daitekeen behar ezberdinei erantzun behar baitie taldeak, eta talde bakoitzak bere erritmoa edukiko du. Halere, jarraian aipatzen dira aurreikusten diren **EZAUGARRI** batzuk:

- Laguntza taldearen iraupena 8 hilabetekoa izatea aurreikusten da. Halere, luzapenak eduki ditzakete, baita ere talde batzuk egonkorrak izatera iritsi daitezke.
- Laguntza taldeak itxiak edo irekiak izan ahalko dira. Irekiak diren taldeetan erabiltzaileak sartu edo irten egin ahalko dira bakoitzaren erritmoaren arabera. Horrela adostuko da psikologoaren, erreferentziako gizarte langilearen eta interesatuaren artean. Pertsona batek taldean gehiengo epe bat edukitzea aurreikusi daiteke.
- Taldeen saioak astean behin edo bi astetik behin egingo dira, eta saioaren iraupena ordu betekoa izango da. Taldeak erabaki ahalko du saioak hilerokoak izatea ere bai.
- 8 hilero laguntza taldearen balorazioa egingo da. Kasuan kasu, balorazioa urte batera luzatu daiteke, intentsitatea moldatu delako.
- Taldeak sortuko ez balira, bertarako aurreikusitako orduak beste programetan erabiliko lirateke.

Aurreikusitako intentsitatea

Esku-hartze psikosoziala taldea *(3 talde urtean. 36 ordu taldeko.* ***108 ordu urtero****):* Intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 4 saio (balorazioa) + 10 saio (esku-hartzea) + 4 saio (itxiera) = 18 saio/ordu.
- *Zeharka:* talde prestaketa 5,5 ordu + saio bakoitzaren prestaketa 9 ordu + itxiera txostena 3,5 ordu = 18 ordu.

OINARRIZKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

Programaren helburua da laguntza eskaintzea pertsona, familia edo erabiltzaile taldeen jokabide-errepertorioak aldatzeko eta hobetzeko, horiek autonomoak izatea eta euren gizarteratzea ahalbidetzeko. Zehazki, lortu nahi da gizarte ahultasuneko egoera bat sortzen edo mantentzen duten faktoreak murriztea eta/edo ezabatzea, ondorio psikologikoak prebenitzea eta arintzea, eta gizarteratzea zailtzen dioten faktore eta zailtasun psikologikoei heltzea. Hortaz, psikologoak jarrera eta portaera zentzudunak bultzatuko ditu, programaren hartzaileek dituzten disfuntzioetan esku-hartuko du, pertsonaren egokitzapen-aldaketak sustatuko ditu aldaketa eta entzuteko gaitasuna indartuz eta abarra.

Hartzaileak

Azkoitiko pertsonak eta familiak orokorrean, baina bereziki zerbitzuaren onuradunak izateko **BALDINTZAK** betetzen badituztenak:

- Preskripzio teknikoa edukitzea. Koordinatuta egingo da Udaleko Gizarte Zerbitzuen, Azkoitiko Anbulatorioaren eta Azpeitiko Buruko Gaixotasun zentroaren artea.
- Intentsitate maila altukoa, baina epe motzeko behin-behineko zerbitzua behar izatea.
- Ez edukitzea jokabide-nahasmendurik eta pertsonarentzat edota profesionalarentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.
- Osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.
- **Buruko gaixotasunik diagnostikatuta ez edukitzea. Soilik, onartuko dira moldatzeko nahasmendu arina daukaten pertsonak.**

- Adingabeak badira, ezinbestekoa izango da guraso edota tutorearen baimena.

Ezinbesteko baldintza horiek betetzen badituzte ere, **PROFILA** konkretu bateko pertsona edo familia azkoitiarrek jaso ahal izango dute oinarrizko laguntza psikosoziala. Honakoak:

- **16 eta 30 urte bitarteko azkoitiar gazteak.** Salbuespenez, 15 urteko nerabeak ere izan daitezke. Honako egoeretan daudenak:
  - Epaitegiko neurri judizialak dituzten gazteak edota ohiko arau-hausleak direnak.
  - Adikzioa arazoak dituzten gazteak: teknologia berriak eta bestelako kontsumoak.
  - Urte bete baino gehiago ikasketarik gabe eta lanik gabe dauden gazteak.
  - Bulkadak kontrolatzeko zailtasunak dituzten gazteak.
  - Beste batzuk, horrela erabakitzen bada, kasu bakoitzaren arabera.
- **Larrialdi egoerak kudeatzen laguntza behar duten azkoitiarrak.** Ulertuko da larrialdi gisa, aurreikusi ezin daitekeen bat-bateko gertakari batek eragindakoa, naturala edo probokatutakoa; eta ahalmen pertsonalei, bizitzeko baliabideei eta gizarte eta familia harremanei edo sareei kalte eragin, eta horiek konprometitzen dituena (GZES Zorroari buruzko Dekretuak 28.1 artikulua). Onuradunak, gehienetan, 2.mailara arteko ahaideak (afinitatea barne) izango dira. Artatu ahalko liratekeen egoerak: suizidioak, bat-bateko heriotza traumatikoak…
- **Haur jaio berriak** izanik (0-3 urte), egoerak kudeatzeko zailtasun emozionalak dituzten **gurasoak**.
- **Azkoitiko Gizarte Larrialdiko Harrera zerbitzua erabiltzeko arrazoiak ematen direnean**: familia-unitatearen bizitokia den eraikina ez erabiltzeko moduan uzten duen hondamendia, sutea, uholdea nahiz antzeko ezbeharrak; baita indarkeria matxista biktimak diren emakumeak eta familiak (segurtasun arazoak ez badaude).
- **Hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonak** (Baturan instrumentuak balioetsita). Konkretuki, Hauskor programako onuradunak. Salbuespenez, Bizipoza Zerbitzuko erabiltzaileak ere bai (Eguneko Arreta Zerbitzuko). Beti ere, teknikoki balioesten bada esku-hartze giza-hezitzailerekin batera beharrezkoa duela laguntza psikosoziala.
- **Mendekotasun arriskuan dagoen pertsonaren zaintzaile ez profesionala.** Mendekotasun arriskuan dagoen (BVD baloratu gabe) pertsonaren zaintza bere ingurunean izateaz arduratzen den familiako kidea (2. Gradu arteko ahaidetasuna edo afinitatea), beti ere elkarbizitza ematen bada euren artean, eta egoera kudeatzeko arazo emozionalak baditu zaintzaileak. Mendekotasuna baloratuta badu, Sendian programan sartuko litzateke.
- Azkoitiko Udaleko oinarrizko **gizarte zerbitzuetako profesionalak** (azpikontratatutako langileak barne) bere ohiko jardunean euskarri teknikoa eta emozionala behar dutenean.

Modalitateak

1) Esku-hartze psikosoziala.

- Psikologoak esku-hartze terapeutikoak egingo ditu osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren kalitatea hobetzera bideratuak. Interbentzio horien artean egon daitezke terapia kognitibo-konduktuala, terapia sistemikoa, terapia laburra, besteak beste.
- *Argi eta gabi utzi behar da Osasun Sistemak (espezifikoki Buruko Gaixotasun atalak) artatu beharko dituela nortasunaren nahasmendua edota patologia mentalak dituzten pertsonak. Halere, salbuespenez, moldatzeko nahasmendu arina daukaten profil horretako pertsonak artatu ahalko dira.*
- Laguntza jasotzeko aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du gizarte langileak, eta eskatzaileak beharrezkoa duela balioetsi beharko dute hileko koordinazio soziosanitarioan kasua artatuko duen erreferentziako gizarte langileak eta Azkoitiko anbulatorioko pertsonaren familia medikuak eta erizainak.
- Ohikotasunean, esku-hartze saioak astean behin izango dira, saio bakoitzak ordu beteko iraupena izango du. Dena dela, saioak bi astetik behin ematea ere baloratu daiteke.
- Esku-hartze psikosozialeko balorazio faseko 2 saioak egin ondoren, balioetsi ahalko da pertsona horrek ez dituela laguntza jasotzeko baldintzak betetzen, ezta profila ere. Horrela bada, dagokion

baliabidera bideratuko da, baliabiderik egongo balitz.

- Esku-hartze psikosozialak 4-5 hilabetekoak izatea aurreikusten da gehienez, ez da luzapenik egongo saio kopuruak amaitzen direnean. Saioak amaitzean, laguntza taldeetara bideratu ahalko dira, edo beste zerbitzu batzuetara.
- Zerbitzua jasoko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako eskumeneko baliabideak jasotzeko eskubidea ez dutenek.

2) Euskarri teknikoa eta emozionala udal profesionalei.

- Laguntza eta aholkularitza teknikoa eskainiko dio Azkoitiko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileei, hala behar den kasuetan.
- Prestakuntza eskainiko die langileei (azpikontratatutako langileak barne, euren jardunaldiaren barruan, eta hitzarmeneko orduetatik aparte) osasun mentalaren, nahaste psikologikoen prebentzioaren eta krisi emozionalen egoerei aurre egiteko estrategien inguruan.
- Udal langileek oinarrizko gizarte zerbitzuetara etorritako erabiltzaileren batekin edukitako gatazka baten aurrean, kudeaketa emozional egokia egiteko laguntza eskainiko da.
- Euskarri emozionala aktibatzeko oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileak eskatu behar du, eta Gizarte Ongizate Saileko arduradun teknikoaren oniritzia beharrezkoa izango da.

Aurreikusitako intentsitatea

1) Esku-hartze psikosoziala: *(13 kasu. 16,5 ordu kasuko.* ***216 ordu urtero****):* Intentsitatea:

- *Zuzena* (orduko saioak): 2 saio (balorazioa) + 6 saio (esku-hartzea) + 2 saio (itxiera) = 10 saio.
- *Zeharka* (orduka): Saioen planifikazioa 2,5 ordu + balorazioa txostena 0,5 ordu + itxiera txostena 2 ordu + koordinazioa gizarte langilea-medikua-erizaina (aurkezpena + deboluzioa) 0,75 + 0,75 = 6,5 ordu

2) Euskarri teknikoa eta emozionala udal profesionalei. Esku-hartze kopuruaren eta modalitatean arabera aldatuko da. ***57 ordu urtean*** aurreikusten da. Honako modalitateak egongo dira:

a) Laguntza eta aholkularitza teknikoa. *13 ordu.*

b) Prestakuntza 1 egitea aurreikusten da urtean. *20 ordu*. (planifikazioa 10 ordu + zuzeneko saioak 6 ordu + ebaluazio/balorazioa 4 ordu).

c) Babes emozionala (Gizarte Zerbitzuetako udal langileak). *24 ordu urtean*. (3 kasu). 5 saio zuzena + zeharka 3 ordu).

LARRIALDIKO ADINGABEEN IKERKETA ETA BALORAZIOA

Programaren helburua da adingabearen babesgabetasun egoera baloratzea eta dagokion larritasun maila identifikatzea. Udalak adingabeko baten ustezko babesgabetasun baten jakinarazpena jasotzen duen momentuan aktibatu ahalko da. Halere, programa aktibatzeko, lehenik, beharrezkoa da Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetako kasuaren ardura duen gizarte langileak beste adingabe batzuen jakinarazpenak ikertzeko eta baloratzeko itxaron zerrenda edukitzea. Bigarrenik, Udalak jasotako adingabearen ustezko babesgabetasun jakinarazpenak biltzen duen informazioa eta adierazleen arabera, aurreikustea lurralde-mailako gizarte zerbitzuetan artatu beharreko egoera dela larritasun-mailaren arabera; eta, hortaz, ez da Udal mailako esku-hartzerik aurreikusten.

Modalitateak

- Ez-ohiko zerbitzua izango da. Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuak aktibatuko du, beti ere egiaztatuta beste kasu batzuk dituela itxaron zerrendan ikertzeko eta baloratzeko; eta, lurralde-mailako gizarte zerbitzuetan artatzeko informazioa eta adierazleak daudela.
- Ezinbestekoa izango da BALORA instrumentua pasatzea.
- Ikerketaren iraupena eta intentsitatea oso aldakorra izango da, kasuaren larritasun mailaren arabera.

Aurreikusitako intentsitatea

Intentsitate maila handiko ez-ohiko zerbitzu laburra izango da. Aurreikusten da epe oso motzean langilearen dedikazioa handia izatea, ohikotasunean psikologoa *(2 kasu. 32 ordu kasu bakoitzak.* ***64 ordu urtean****)*: Intentsitatea: • *Zuzena* (orduko saioak): 4-6 saio adingabe/guraso eta 4-6 saio koordinazioak eragileak = 8-12 saio. • *Zeharka* (orduka): 0,5 saioko x 12 = 6 ordu + hasierako ikerketa eta programazioa 6 ordu + balorazio txostena 6 ordu + bilerak gizarte langilea (aurkezpena + deboluzioa) 1+1 = 20 ordu

EKIMEN KOMUNITARIOAK
Zerbitzu honek biltzen dituen programetan nagusiki artatzen dira babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeak eta familiak, gizarteratzeko beharra duten eta beraz bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsonak eta familiak, eta indarkeria matxista egoerak pairatu dituzten emakumeak eta familiak. Aipatutako pertsona horien laguntza prozesuan eta etorkizunean gizartean txertatuak izateko funtsezkoa dira Azkoitiko herritarrak orokorrean. Hori horrela, ekimen komunitarioetan lan-taldeko profesionalen presentzia funtsezkoa da egoera horietan aurkitzen diren azkoitiarren berri gainontzeko eragileei eta herritarrei plazaratzeko, baita ere pertsona horiek komunitateko espazioetan ahotsa edukitzeko.
Modalitateak
Zerbitzuko lan-taldeko kideek ordezkaritza edo partaidetza edukitzean datza. Ekimen edo programa ezberdinen arabera Azkoitian dauden iniziatiba eta ekintza komunitarioetan presentzia izango du zerbitzuak, parte-hartuko du aktiboki edota zerbitzuak berak dinamizatu ahal izango du. Gaur egun, iniziatiba ezberdinak daude herrian, izan foroak izan batzordeak izan bestelako ekimen puntualak. Esaterako, “Tratu On”, “Hezkidetza Foroa”, “Azkoitia Lagunkoia”, “Jaietako Batzordea”, “Euskara Mahaia”, “UrolaEkin Sarea” eta abar.
Aurreikusitako intentsitatea
Esku-hartze komunitarioa: *(27 ordu urtean):* • *Zuzena* (ekimenetako parte hartze zuzena): 18 ordu. • *Zeharka* (ekimenetatik eratorritako lanak): 9 ordu.

3.5.- ZERBITZUAREN KOORDINAZIOA ETA PLANIFIKAZIOA

Zerbitzuak barne hartzen dituen programa guztiak aurrera eraman ahal izateko (3.4. atalean zehaztutakoak) beharrezkoa da egitea bai barne koordinazioa bai kanpoko koordinazioa. Baina, ez hori bakarrik, zerbitzuaren planifikazioa eta ebaluazioa ere funtsezkoa da. Hortaz, programa bakoitza garatzeko zehaztutako orduez gain (zuzenekoak eta zeharkakoak), honako denborak aurreikusten dira zerbitzuaren koordinaziorako eta planifikaziorako. Jarraian zerrendatzen den taulan ez daude koordinatzailearen orduak sartuta.

MOTA	AZALPENA	ORDUAK
Lan-taldearen asteko bilerak	52 aste x 2 ordu = 104 x 5 langile	520
Langilea eta koordinatzailea	12 hilabete x 1 ordu = 12 x 5 langile	60
Gizarte langilea/lan-taldeko kideak	Puntualak (emailez, telefonoz, aurrez aurre)	25
Eskolekin hiruhileko bilerak	3 ebaluaketa x 2 ordu x 4 zentro x 1 langile	24
Gazteria (Ludoteka, topaleku…)	3 hilero x 2 ordu x 1 langile	6
Beste eragileak koordinazio	1 urtean x 2 ordu x 4 eragile x 1 langile	8
Beste koordinazio batzuk	Zehaztu ezin daitezkeenak	9,5
Psikologoa eskola “feedback”	40,5 aste (9 hil) x 0,25 ordu x 3 zentro x 1 langile	30

Langileentzat prestakuntza	20 ordu urtean (hitzarmena) x 5 langile	100
Zerbitzuaren planifikazio orokorra	52 aste x 2,5 ordu	130
Bestelakoak: txosten bereziak	Zehaztu ezin daitekeena	47
	GUZTIRA	959,5

3.6.- ESPARRU GEOGRAFIKOA

Jarduerako esparru geografikoa Azkoitiko udalerria da.

Dena dela, salbuespenez eta egoera bakoitzaren balorazio teknikoaren arabera, Azkoitiko eremu geografikotik kanpo eman ahal izango da jarduera egoera berezietan: besteak beste, akonpainamendu puntualak egiteko, adingabearen babesgabetasun balorazioa egiteko… Udal barruko irizpideak kontuan hartuko dira zerbitzua jartzerako garaian.

4.- Jarduera protokoloa

4.1.- Zerbitzuaren menpekotasuna

Kontratatutako zerbitzua, Gizarte Ongizate Sailaren menpe egongo da, eta garatu behar diren prestazioak koordinatzea eta gainbegiratzea dagokio saileko arduradun teknikoari eta programaren ardura edukiko duen gizarte langileari.

4.2.- Zerbitzuaren prestazioa

Zerbitzua aurrera eramango duen lan-taldeak zerbitzuari zuzendutako gune bat izango du eskaini beharreko zerbitzuak emateko. Gune hori Azkoitiko Udalak jarriko du.

Espazio horretaz gain, pertsonei arreta eskainiko zaie beste udal egoitzetan, onuradunen etxebizitzetan, inguru irekian, komunitatean edo esku hartzea dagokion pertsonak parte hartzen duen inguruetan.

4.3.- Esku-hartze mailak

Zerbitzuak bakarkako, familiako eta taldeko esku-hartzeak gauzatu behar ditu, eta esparru familiarrean edo komunitarioan garatu ahal izango dira. Esku-hartzeak programa bakoitzaren ezaugarrietara moldatu beharko dira.

4.4.- Esku hartze prozedurak

Esleipendun enpresak zerbitzuan integratutako programa guztiak garatzen direla bermatu beharko du.

Gizarte Ongizate Saileko gizarte langileek bideratutako pertsona guztiak artatuko ditu une-oro adjudikazio-hartzaileko lan-taldeak, salbu eta momentu horretan programaren bat martxan jartzeko baliabide nahikorik ez badago. Kasu horretan, Gizarte Ongizate Sailak kudeatuko duen itxaron zerrenda martxan jarriko da. Itxaron zerrenda hileko lehen asteartean eguneratuko da, eta horren ardura izango du programaren ardura duen gizarte langileak.

Behin bermatuta baliabide nahikoa dagoela, Udaletik martxan jartzea proposatu den programaren helburuak bere gain hartuko ditu adjudikazio-hartzaileko lan-taldeak. Eta honi buruz eskatzen diren balorazio eta txostenak egingo dira.

Esku-hartze goiztiarreko esku-hartzeak, gizarte heziketa eta psikosozial programako esku-hartzeak, oinarrizko laguntza psikosozialak eta larrialdiko adingabeen ikerketa eta balorazioa aktibatu ahal izateko, funtsezkoa da Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sisteman esku hartzeko oinarrizko prozedura. Oinarria du abenduaren 5eko 12/2008 Legea (Gizarte Zerbitzuei buruzkoa) eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretua (Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrori buruzkoa). Honakoa:

- Udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langileen ardura da beharra jaso eta balorazioa egitea, nahiz eta kontratatutako talde profesionalaren babesa eta laguntza edukiko duen.
- Udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langileek, kontratatutako talde profesionaleko kideen laguntzarekin, egingo dute Arreta Pertsonalizatu Plana (APP), baita esku hartze arloak eta helburuak eta behar duen programa/zerbitzuak finkatu ere.
- Kontratatutako taldeko profesionalek adostutako esku hartze plana zehaztu eta aurrera eramango dute, erreferentziako gizarte langilearekin batera.
- Lan-taldeari eta erreferentziazko gizarte langileari dagokio esku hartzearen eta adostutako helburuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Prozesu guztian, kontuan izango da:

- Esku hartze zuzena egitea, hots, pertsonaren parte hartzea eta adostasuna bermatzea arreta pertsonalaren planaren diseinuan eta zehaztutako helburuetan (koordinazio bileretan parte hartuaz, konpainia eta profesional desberdinen aurkezpenetan….).
- Esku hartzeen deribazio, jarraipen eta amaierako txostenak, babesgabetasun eta bazterketa egoeren balorazio txostenak egin.
- Kasuen esku hartzean eta gainbegiraketan lan egiten duten profesional desberdinen koordinazioa.
- Esku hartze komunitarioa eta taldekoa.
- Genero ikuspegia.
- Beste batzuk.

5.- Lan-taldea

5.1.- Antolamendua

Zerbitzuaren emakidadunak, plegu honetan aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta modurik onenean eman ahal izateko antolamendu-mailako egitura aurreikusi beharko du, pertsona erabiltzaileen bizi kalitatearen hobekuntza izango da helburu nagusia, eta horren emaitzak agerikoak izan beharko dira.

Plegu honetan zehaztutako zerbitzu bakoitzak beharrezko langile, azpiegitura eta ekipamendu kopurua izango du, era horretan, araudi aplikagarrian xedatutako gutxienekoak betez, zerbitzuko programa guztiak bermatzeko.

Koordinatzaile bat izango da lan taldea eta zerbitzuko programa guztiak kudeatzeko.

Lan-taldeak beharrezkoa duen formazioa izango du, aurrera eman behar diren zerbitzuak eta funtzioak modu egokian gauzatzeko.

Eskaintzan aurkeztu beharko du lan taldearen antolaketa, langile bakoitzaren funtzioak zehaztuz, baita identifikatuz zeintzuk diren programa bakoitzaren eta zerbitzu osoaren zuzeneko eginkizunak eta zeintzuk zeharkakoak eta horien banaketa nola egingo den.

Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak izango du kontratatutako zerbitzuen jarraipena eta kontrola egiteko ardura: horretarako, zehaztutako mekanismoak erabiliko dituzte, eta jarduerak etengabe ikustatuko dituzte.

Plegu teknikoetan jasotakoaren eta adjudikazio-hartzaileak proposatutako memoria teknikoan jasotakoaren artean dauden desorekak edo/eta inkongruentziak Udalak erabakiko ditu adjudikazio-hartzailearekin aztertuta.

5.2.- Osaketa

Esleipendun enpresak beharrezko diren giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko, pertsonal horrek sortutako kostu guztiak bere gain hartuz, eta inondik inora ez dute Azkoitiko Udalarekin lotura administratiborik izango. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresa eta bere pertsonalaren arteko harremanetatik sortutako ardurengatik.

Esleipendun taldeak behar diren giza baliabideak ziurtatu beharko ditu, Azkoitiko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen arreta zuzena eta zeharkakoa eskaintzeko eta jarraipen egokia egiteko.

Zerbitzuaren garapenean lan egingo duen zuzeneko lan-taldeko kideak izango dira:

- **4 GIZARTE-HEZITZAILE:** sexuaren araberako ordezkaritza orekatua bermatuko da.
  - Profesionalek Gizarte eta Giza Zientzien arloko goi mailako edo erdi mailako titulazioa izan behar dute.
  - Adingabekoen edota bazterketa egoeran dauden pertsonekin egindako esku hartzeetan gutxienez 1 urteko esperientzia egiaztatua.
  - C1 euskarako maila (EGA).
  - Sexu-delituen berariazko zigor-aurrekaririk ez edukitzea.
  - Urtean eskaini beharreko orduak izango dira 2 lanaldi oso (%100) eta 2 lanaldi partzial (%75). Hezitzaile horietako bik (2) lanaldi oso baten %50 (1.592 ordu guztira) bideratuko dute ingurune irekian gizarte heziketa programara.
  - Esku-hartze sozialari buruzko Gipuzkoako hitzarmen kolektiboa aplikatuko da.
  - 4 hezitzaileak subrogatu egingo dira.

- **1 PSIKOLOGO**:
  - Psikologian lizentziatura edo gradua izateaz gain, Psikologoen Elkargo Ofizialean kolegiatua egon beharko du.
  - C1 euskara maila (EGA).
  - Familia esku hartzean gutxienez 1 urteko esperientzia egiaztatuta.
  - Sexu-delituen berariazko zigor-aurrekaririk ez edukitzea.
  - Urtean eskaini beharreko orduak lanaldi baten %100 izango dira.
  - Esku hartze sozialari buruzko Gipuzkoako hitzarmen kolektiboa aplikatuko da.
  - Psikologoa subrogatu egingo da.

- **1 KOORDINATZAILE**:
  - Zerbitzuaren koordinatzaileak Gizarte eta Giza Zientziekin lotutako diziplinaren batean diplomatura, gradua edo lizentziatura bat izan beharko du.
    - Esku hartze zuzena egiten dutenei aholkularitza, orientazioa eta gainbegiraketa egingo dio, baita esku hartzea aurrera eramaten ari diren lan-taldeko gainontzeko kideei: hezitzaile, psikologo, gizarte langile, beste edozein profesional.
    - C1 euskara maila (EGA).
  - Adingabekoen edota bazterketa egoeran dauden pertsonekin egindako esku hartzeetan gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua.
    - Gutxienez 2 urteko esperientzia egiaztatuta edukitzea koordinatzaile gisa zerbitzuaren objektua den zerbitzuak koordinatzen.
    - Lan horretara bideratutako orduak urtean 300 ordu izango dira.

Zerbitzuaren kontrola eta jarraipena egiteko funtsezko figura da. Bere egitekoa izango da aholkularitza, orientazio eta gainbegiraketa egitea esku hartze zuzena egiten dabiltzan hezitzaileei eta psikologoari, gizarte langileei eta bestelako profesionalei. Horrez gain, zerbitzua bere osotasunean betetzeaz arduratuko da, adjudikazio hartzaileak egindako proposamenaren eta plegu teknikoetan jasotakoaren arabera. Bere dedikazioa honakoa izango da:

MOTA	KALKULUA	ORDUAK
Lan-taldearen asteko bilerak	52 aste x 2 ordu	104
Langilea eta koordinatzailea	12 hilabete x 1 ordu = 12 x 5 langile	60
Udaleko arduradun teknikoa	3 hilero x 2 ordu	8
Zerbitzuaren planifikazioa	52 aste x 2 ordu	104
Beste zeregin batzuk…	Orduko poltsa	24
	GUZTIRA	**300**

Proposamen teknikoa aurkeztuko da, eta bertan zehaztuko dira esleipendun zerbitzuko profesional bakoitzari dagozkion funtzioak eta ordutegia.

Zerbitzuaren bilakaera ikusita, eta azken urteetan izan den bideratzeen gorakada kontuan hartuta, eta esku-hartzeen kasuak ugarituko balira, hezitzaile edo psikologo lanak handitu ahal izango dira beharrezkoa den baina aurreikusi ezin daitekeen langile baten behin-behineko kontratazio baten bitartez. Beti ere, kontratazio horrek ez badu gainditzen plegu administratiboetan jasotako gehiengo balio ekonomikoa.

5.3.-Langileen ordezkapenak

I.- Esleipendun enpresak beharrezkoak diren giza baliabideen ordezkapenak bermatu beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzen jarraitzeko. Langileen ordezkapenak gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko ditu. Epe horretatik aurrera ordezkapenak egiten ez badira, orduen-poltsa bat sortuko da etorkizunean egon daitezkeen zerbitzuen gorakadari edo zerbitzu puntualei erantzuteko, udalarentzat inongo kosturik gabe.

II.- Lan-taldea osatuko duten kideen gutxieneko baldintzak zehazten diren arren 5.2.atalean, langileen behin-behineko ordezkapenetarako baldintza horiek malgutu ahalko dira horrela adosten bada Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin eta esleipendun enpresaren artean.

III.- Adjudikazio-hartzaileak Azkoitiko Zerbitzu giza-hezitzailea eta psikosoziala aurrera eramateko kontratatzen duen langile berri guztiei ezinbesteko harrera egingo die. Harrera Plan horren edukia baloratuko da esleipen irizpideetan.

IV.- Langile baten ordezkapen programatua aurreikusten denean, esaterako aitatasuna-amatasuna, epe luzeko gaixotasuna, borondatezko baja…; hau da, bat-batekoa ez bada izan bere ordezkapenaren beharra, esleipendun enpresak programen funtzionamenduan eragin gutxien izateko, ordezkatua izango den langilearen eta langile berriaren artean gutxieneko 2 eguneko lanaldien gainjarpena bermatu beharko du.

6.- Ordutegia eta lan-egutegia

Pertsonari arreta goiz eta/edo arratsaldeko ordutegian eskainiko zaio, pertsona/familiaren ezaugarrien eta esku hartzearen arlo eta helburuen arabera.

Prestazioen ordutegia, egin beharreko esku hartzeen araberakoa izango da.

Ordutegia malgua izango da, dauden beharren arabera.

Salbuespen modura eta beti, inguru irekian gizarte hezkuntza jardueren barruan, beste esku hartze ordutegiak ezarri ahal izango dira. Hortaz, salbuespen modura, zerbitzua larunbatetan ere eskaini ahalko da. Izan ere, aurreikusten da hilean behin, gutxi gora-behera, larunbatean, artatutako nerabeekin eta gazteekin ekintza puntualak burutuko direla. Enpresa esleipendunak ekintzen programazioa eta ordutegia aurkeztu beharko dio Gizarte Ongizate Sailari, eta azken honekin adostutakoa onartuko da ondoren.

Lan-taldeko kideen oporretako egutegiek oreka bat bilatu beharko dute zerbitzuko programen xehetasunaren, zerbitzuen onuradunen beharren eta lan-taldeko langileen beharren artean. Azkoitiko Udalak honako irizpideak mantentzea eskatuko du:

- Bermatu behar da zerbitzua urteko 12 hilabeteetan zehar betetzea programa bakoitzaren ezaugarrietara egokituta.
- Urte guztian zehar lan-taldeko kideetako bat gutxienez aktibo egotea.
- Oporraldi garaiak gehienbat kontzentratzea, batetik, uztaileko azkeneko astearen eta irraileko lehenengo astearen artean; eta, bestetik, gabonetako oporraldian.

- Programen funtzionamenduan eragin gutxien eragin dezakeen uneetan hartzea oporrak.

Halere, salbuespen modura, eta Gizarte Ongizate Sailarekin adostuta, eskaini beharreko zerbitzu guztiak etetea erabaki daiteke une konkreturen batean..

Arestian jasotako horiek guztiak, baita enpresak aurkeztutako ordutegia eta lan-egutegia ere, moldatu ahalko dira; baina beti Gizarte Ongizate Sailaren oniritzia beharrezkoa izango da.

Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak duen lan egutegia errespetatuko da (jaiegunak,..)

7.- Langileen prestakuntza

Adjudikazio hartzaileak, lan-taldea osatzen duten langileei zuzendutako urteko Formazio Plana aurkeztu beharko du urtero, konkretuki, urtarrila amaitu baino lehen.

Prestakuntza plan hori bat etorri behar da enpresak esleitzeko irizpideetan (era automatikoetan bai judizio bidez baloratutakoen) jasotakoarekin.

Azkoitiko Udalak kontratatutako lan-taldeko kide guztien lan-orduen barruan sartuko da lan hitzarmenak langile bakoitzari urteko bermatzen dien gutxieneko 20 orduak. Gainontzeko orduak, egindako proposamenaren arabera, ez du kosterik edukiko Azkoitiko Udalarentzat.

8.- Errekurtso materialak

Azkoitiko Udalak zerbitzuaren eta esleitutako enpresaren eskura jarriko du zerbitzuaren garapen osorako gune bat.

Azkoitiko Udalak lan-taldearen eskura jarriko ditu oinarrizko altzariak eta oinarrizko ordenagailuak.

Azkeneko urteetan erositako material ez suntsikorren inbentarioa edukiko du zerbitzuko lan-taldeak, eta berau, une-oro eguneratuta egon behar dena.

Azkoitiko Udalak, zerbitzu honetako ekintza batzuk aurrera eramateko urtero **4.000** euroko aurrekontu bat izango du.

Arestian aipatutako ekintza gastuak estaltzeko adjudikazio-hartzaileak zerbitzuko lan-taldeko kideen eskura jarriko du kreditu-txartela. Gastu horiek hiru hilero aurkeztuko dizkio Udalari eta honen oniritziarekin faktura emitituko dio enpresak Udalari.

Enpresak ipini beharko du:

- Zerbitzua behar bezala ematea bermatuko duten ekipo eta programa informatikoak, baita ere Azkoitiko Udalak jarriko ez dituen errekurtsoak.

- Zerbitzura zuzenki edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta Gizarte Ongizate Saileko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta kontrolerako baliabide teknikoak (langileentzat mugikorrak, posta elektronikoa…).
- Zerbitzu honen enpresa esleituak, erabiltzaileei arreta zuzena emateko beharrezko diren beste material eta zerbitzuen gastuak bere gain hartu beharko ditu, profesionalaren garraio gastuak barne, herritik kanpora egin beharreko akonpainamendua beharrezkoa balitz.
  Dena dela, landa eremuetan eskaintzen diren zerbitzuek eragiten dituzten langileen joan-etorrien gastuak Udalari fakturatu ahalko dizkio enpresak. Joan-etorrietako gastutzat ordainduko da garraio publikoari dagokion zenbatekoa, baina garraiobide kolektiborik ez badago eta langileak bere ibilgailuan egin behar baditu joan-etorriak, lan-hitzarmenean jasotako kopurua ordainduko dio enpresak langileari, eta ondoren honek Udalari hiruhileko gastuen bitartez fakturatuko dio.
- Kontratatutako enpresari dagokio lan-taldeak aurrera eraman beharreko zerbitzuan behar bezala garatzeko beharrezkoa duten material suntsikorra eta ez suntsigarria ematea.

9.- Zerbitzuaren ebaluazioa, justifikazioa eta kontrol sistema.

Zerbitzuaren ebaluazioa, hilero, hiru hilero, sei hilero eta urtero egingo da.

Esleitutako enpresak aurkeztu beharko duen txosten teknikoan zerbitzuaren ebaluazio, justifikazio eta kontrol proposamena egingo du.

Behin proposamena balioetsi ondoren, esleitutako enpresarekin adostuko da aurkeztu beharreko dokumentazioa eta bertan zehaztu beharrekoa, garatuko diren ebaluazio mailaren arabera:

- Kontratuaren garapen orokorraren ebaluazioa.
- Zerbitzuaren barruan dauden programen garapena eta ebaluazioa.
- Zerbitzuaren metodologia eta antolakuntzaren ebaluazioa.
- Landutako kasuen eraginkortasunaren ebaluazioa.

Adjudikazio-hartzaileak memoria teknikoan aurkeztutako proposamenaren arabera garatuko da ebaluazioa, justifikazioa eta kontrola egiteko sistema. Une-oro neurtuko da lan-taldeak zeregin horretara bideratuko dituen denborak eta metodologia, eta horien efizientzia.

10.- Barruko eta kanpoko komunikazioa eta irudi korporatiboa.

Modu orokorrean esanda, plegu honen xede eta helburu diren jarduerei aipamena egiten dieten jakinarazpenetan, Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Saila izena agertu beharko da.

Horrez gain, Zerbitzu barruan irudia eraman dezaketen identifikazio edo seinalapen osagaietan, paper gauzetan, txosten eta gainerako euskarrietan, Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak definitutako begiarekiko identitate irudia islatuko da.

11.- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko irizpideak

Kontratazio honek bete behar ditu Azkoitiko Udalak kontratu publikoetan generoa txertatzeko onartuta dauzkan irizpideak.

Genero ikuspegia beti hartu behar da aintzakotzat, uneoro alegia, kontratatutako lana egiterako garaian.

Erabilitako agiri guztietan (programa aurkezteko Idatzietan, galdetegiko testuak, txostenak eta abar) hizkuntza ez sexista erabiliko da.

Ildo beretik, kontratua diseinatu eta exekutatzean genero ikuspegia hartuko dute aintzakotzat, hala diagnostikoan nola helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Era berean, zerbitzuaren ebaluazio, justifikazio eta kontrol-sistemak jaso behar du genero-inpaktuaren gaineko informazioa, erabiltzaile edo onuradunen sexuaren arabera bananduz adierazleak, datuak eta egoera.

Era automatikoan balioesteko irizpideetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko irizpideak jaso dira, baita ere kontratua gauzatzeko baldintza bereziak. Azken horiek izango dira:

	Kontratua gauzatzeko baldintza berezia	Egiaztatzailea	Ebaluatzailea
1	Aurkeztu beharko da kontratazioak kontratatutako jardueraren onuradunengan edo jarduera gauzatuko duten langileengan izango duen genero-eraginari buruzko memoria. Horretarako, sexuaren arabera bereizitako datuak eta aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak aurkeztu beharko dira.	Urtero, enpresa esleipendunak prestazioaren onuradunentzako edo langileentzako berdintasunaren aldeko jarduketen eraginaren ebaluazioaren kopia aurkeztu beharko du. Sexuaren arabera bereizitako datuak, ekintzen zerrenda eta aplikatutako neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko adierazleak aurkeztu beharko dira.	Kontratua gauzatzean aplikatutako berdintasun-ekintzen neurri zehatzen kopurua eta onuradun kopurua (sexua bereizita).
2	Kontratuaren egikaritze-esparruan emakumeen eta gizonen artean ordainsari-diskriminaziorik ez dagoela egiaztatu beharko da.	Hilero aurkeztu beharko du dokumentazioa enpresak: kontratuari lotutako langile bakoitzaren nomina.	Langile guztien nominak hilabete horretan burututako lanaldiarekin bat etorri behar dira.

12.-Aurrekontua

Zerbitzuarentzat urtebeterako (12 hilabete barne) estimatutako aurrekontua, %10 BEZa barne, 302.676,58 euro izango da, horietatik 275.160,53 euro printzipalari dagokiona eta 27.516,05 euro %10eko BEZari dagokiona, eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek euren eskaintzetan.

Kontratuaren osotasunerako balioetsitako aurrekontua, luzapenak barne, eta BEZ gabe, 1.100.642,12 euro dira.

Zerbitzua hasten denetik zerbitzuari dagokion erabateko kostuaren zati proportzionala aplikatuko zaio.

13.-Fakturazioa

Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozial zerbitzua hilero fakturatuko da, hortaz, urtean 12 faktura aurkeztuko ditu adjudikazio-hartzaileak.

Hiru hilero faktura aurkeztuko du enpresak zerbitzuko ekintza gastuak estaltzeko. Faktura bidali aurretik, egindako gastuen zerrenda bidaliko da programaren ardura duen gizarte langileak egiaztatzeko.

14.-Iraupena

Kontratuak **HIRU (3) URTEKO** iraupena izango du, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Sinatze hori zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da.

Kontratua URTE BATEZ luzatu ahal izango da, gehienez 4 urtera iritsi arte, horretarako beharrezkoa izango delarik Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29. artikuluan ezarritako egoerak gertatzea eta eskakizunak betetzea.

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat nahitaezkoa izango da, betiere kontratuaren iraupen epea bukatu baino bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

15.-Konfidentzialtasuna

Kontratazioak datu pertsonaletara sartzeko modua ematen dionez esleipendunari, eta horien tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea denez, esleipenduna izango da datu horien tratamenduaren arduraduna. Horretarako, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren gainean ezarritakoa bete beharko du.

Enpresak eskuratu ahal izango dituen datuak konfidentzialak dira. Azterketa honetan lortutako datuak eta informazioa Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak babesten ditu eta, beraz, behin lana amaitu ondoren lagatako programa informatikoa eta jasotako dokumentazio guztia, paperan nahiz euskarri informatikoan, entregatu beharko dio esleipendunak Azkoitiko Udalari, eta ez du kopia bakar bat ere gordetzeko baimenik izango.